

BOOKTEGI



Gizon dantzariaren abentura

ARTHUR CONAN DOYLE

Steele 03



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

ARTHUR CONAN DOYLE

Gizon dantzariaren abentura

Itzultzailea

Maidar Vázquez Magunacelaya

Zuzentzailea

Irati Simarro Orue

Maketatzailea

Beñat Olazabal Garate

Holmes isilik egon zen zenbait orduz, bere bizkar luze eta mehea ontzi kimiko baten gainean makurtuta, non usain txarreko produktu bat prestatzen ari baitzen. Burua bularraren gainean zeukan makurtuta, eta nire ikuspuntutik txori arraro eta argal bat zirudien, lumaje gris kamutsarekin eta gandor beltz batekin.

—Hortaz, Watsonek —esan zuen bat-batean—, ez al duzu proposatuko Hegoafrikako baloreetan inbertitzea?

Harritu nintzen. Holmesen gaitasun bitxietara ohituta nengoen arren, nire pentsamendu intimoenetan bat-bateko sartze hori zeharo azaltezina zen.

—Nola demontre dakizu hori? — galdetu nuen.

Bere aulkiaren gainean jirabiraka zebilen, eskuan test-hodi suhar bat eta bere begi sakonetan disdira bat zuela.

—Orain, Watson, aitor ezazu erabat harrituta zaudela — adierazi zuen.

—Hala nago.

—Horren agiri bat sinarazi beharko nizuke.

—Zergatik?

—Bost minutu barru esango duzu hau guztia hain dela sinplea, ia barregarria dela.

—Ziur nago ez dudala halakorik esango.

—Ikusten duzu, Watson maitea —esan zuen, saiakuntza-hodia euskarrian utzi eta irakasle batek bere ikasleei hitz egingo balie bezala mintatzen hasiz—, ez da benetan zaila inferentzia-kate bat eraikitzea, non bakoitza aurrekoaren menpekoa den eta berez sinplea den. Ondoren, Erdiko inferentzia guztiak kendu eta entzuleari hasierako puntua eta ondorioa bakarrik aurkezten badizkiozu, harridura eragin dezakezu, nahiz eta agian efektu azalekoa izan. Orain, zure ezkerreko hatz erakuslearen eta hatz lodiaren arteko atala aztertuta ez zen batere zaila pentsatzea ez zenuela zure diru-apurra urre-meategietan inbertitzeko asmorik.

—Ez dut ikusten inolako loturarik.

—Seguruenik ez; baina berehala erakuts diezazuket lotura estua. Hona hemen kate simple honen lotura galduak: 1. Atzo gauean klubetik itzuli zinenean klariona zenuen ezkerreko hatzaren eta hatz lodiaren artean. 2. Klariona hor jartzen duzu billarrean jokatzen duzunean takoa egonkortzeko. 3. Ez duzu inoiz billarrean jokatzen, Thurstonekin izan ezik. 4. Duela lau aste esan zenidan Thurstonek Hegoafrikako jabetza batzuen gaineko aukera bat zuela, hilabete barru amaituko zena, eta zuk harekin parte hartzea nahi zuela. 5. Zure txeke-liburua nire tiraderan dago giltzapean, eta ez duzu giltza eskatu. 6. Ez duzu zure dirua modu horretan inbertitzeko asmorik.

—Zeinen sinplea den! —oihukatu nuen.

—Hori da! —adierazi zuen, pixka bat minduta—. Arazo oro ume-jolas bihurtzen da behin azaltzen zaizunean. Hona hemen azaldu gabe dagoen bat. Ikus dezagun zer ondorio ateratzen duzun hortik, Watson lagun.

Paper-orri bat bota zuen mahai gainean, eta berriro bere analisi kimikora itzuli zen.

Harriduraz begiratu nien paper gaineko hieroglifo absurdoei.

—Baina, Holmes, hau ume baten marrazkia da! —esan nuen.

—Hori da zure iritzia?

—Zer izan daiteke bestela?

—Horixe jakin nahi du gogotsu Hilton Cubitt jaunak, Ridling Thorpe Manor-ekoa, Norfolkekoa. Asmakizun txiki hau lehen posta-zakarekin iritsi da, eta bera hurrengo treneanetorriko da. Ate-txirrina jo dute, Watson. Ez nintzateke harrituko bera balitz.

Eskaileretan urrats astun bat entzun zen, eta berehala gizon altu, gorrixka eta bizar gabe bat sartu zen gelara. Bere begi garbiek eta masailezur koloretsuek adierazten zuten Baker Streeteko lainoetatik urrun bizi izan zela. Ekialdeko kostaldeko aire fresko eta bizigarriaren usaina zekarren berarekin. Gurekin eskua eman ondoren esertzera zihoala, bere begirada mahai gainean utzitako paperera joan zen.

—Beno, Holmes jauna, zer iruditzen zaizu hau? —esan zuen—. Esan didate misterio bitxiak gustuko dituzula, eta ez dut uste hau baino arraroagorik aurkituko duzunik. Papera aurretik bidali dizut aztertzeko denbora izan dezazun.

—Benetan nahiko bitxia da — Holmesek adierazi zuen—. Lehen begiratuan ume baten txantxa dirudi. Paper gainean dantzan ari diren irudi txiki barregarrien multzo bat da. Zergatik ematen diozu garrantzirik horrelako zerbaiti?

—Nik ez nioke emango, Holmes jauna. Baina nire emazteak bai. Beldurtuta dauka. Ez du ezer esaten, baina beldurra ikusten diot begietan. Horregatik nahi dut kontu hau sakon aztertu.

Holmesek papera altxatu zuen, eguzkiaren argiak haren gainean bete-bete distira egin zezan. Koaderno batetik erauzitako orria zen, markak arkatzarekin eginak ziren, eta honela zeuden idatzita:

Holmesek denbora batez aztertu zuen, eta gero, kontu handiz tolestuz poltsikoan gorde zuen.

—Kasua oso interesgarria eta ezohikoa izango dela dirudi —esan zuen—. Zure gutunean hainbat xehetasun eman zenizkidan, Hilton Cubitt jauna, baina asko eskertuko nizuke berriro guztia azalduko bezenu, nire lagun Watson doktorearen mesedetan.

—Ez naiz oso ipuin-kontalari ona— gure bisitariak esan zuen, urduri, bere esku handi eta sendoak elkartuz eta bereiziz—. Argitu gabe uzten dudan edozer galdetu besterik ez duzue. Iaz ezkondu nintzen unetik hasiko naiz; baina lehenik esan nahi dut, aberatsa ez banaiz ere,

nire familia bostehun urtez bizi izan dela Ridling Thorpen, eta Norfolk konderrian ez dagoela gurea baino ezagunagoa den familiarik. Iaz Londresera etorri nintzen Jubileua zela eta, eta Russell Squaren ostatu-etxe batean gelditu nintzen, gure parrokiako bikarioa, Parker, han geratzen zelako. Emakume gazte amerikar bat zegoen han, Patrick zuen abizena, Elsie Patrick. Nolabait lagunak egin ginen, eta hilabetea amaitu aurretik gizon bat egon zitekeen bezain maiteminduta nengoen. Isilean ezkondu ginen erregistro-bulego batean, eta Norfolkera itzuli ginen ezkon-bikote. Erokeri handia irudituko zaizu, Holmes jauna, familia zahar oneko gizon bat modu horretan ezkontzea emazte batekin, bere iraganaz eta bere herriaz ezer jakin gabe; baina ikusi eta ezagutuko bazenu, ulertzen lagunduko lizuke.

—Elsie oso zintzoa izan zen horretan. Ezin dut esan, hala nahi izanez gero, bertatik irteteko aukera guztiak eman ez zizkidanik. <<Oso harreman desatseginak izan ditut nire bizitzan,>> esan zuen; <<haietaz guztietaz ahaztu nahi dut. Nahiago dut iragana inoiz ez aipatzea, oso mingarria baitzait. Eramaten banauzu, Hilton, pertsonalki lotsatzeko ezer ez duen emakume bat eramango duzu; baina nire hitzarekin konformatu beharko duzu eta zure bihurtu nintzen momentura arte gertatutako guztia isiltzen utzi beharko didazu. Baldintza horiek gogorregiak badira, itzul zaitez Norfolkera eta utz nazazu aurkitu ninduzun bizitza bakartian>> Gure ezkontzaren bezperan bakarrik esan zizkidan hitz horiek. Baldintza horiek onartzen nituela esan nion, eta laial izan naiz nire hitzarekin.

—Beno, urtebete daramagu ezkondata, eta oso zorionsu izan gara. Baina duela hilabete inguru, ekainaren amaieran, arazoaren lehen zantzuak ikusi nituen. Egun batean, nire emazteak Ameriketatik gutun bat jaso zuen. Zigilu estatubatuarra ikusi nuen. Hildako baten moduan zurbildu zen, gutuna irakurri, eta sutara bota zuen. Ez zuen gehiago hitz egin, eta nik ere ez, hitza hitza baita; baina une hartatik aurrera ez du inoiz lasaitasun une bat izan. Beti dago beldur-itxura bat haren aurpegian, zain balego bezala, zerbait espero balu bezala. Hobe luke nigan konfiantza izatea. Bere lagunik onena izango nintzatekeela ikusiko luke. Baina berak hitz egin arte, nik ezin dut ezer esan. Kontuan izan, Holmes jauna, emakume zintzoa dela, eta haren

iraganeko bizitzan arazoren bat izan bada, ez dela haren errua izan. Norfolkeko lur-jabe xume bat besterik ez naiz, baina Ingalaterran ez dago nire familiaren ohorea nik baino gorago jartzen duen gizonik. Berak ondo daki hori, eta ezkondu aurretik ere bazekien. Ez luke sekula orbanik ekarriko gure izenari; horretaz ziur nago.

—Eta orain dator nire istorioaren zatirik arraroena. Duela astebete inguru —joan den asteko asteartea zen—, leiho-ertzetako batean dantzan ari ziren gizon txiki barregarri batzuk aurkitu nituen, paper honetan dauden bezalakoak. Klarionaz eginda zeuden. Pentsatu nuen ukuiluko mutilak egin zituela, baina hark zin egin zuen ez zekiela ezer horretaz. Nolanahi ere, gauez agertu ziren. Garbitu nituen, eta geroago bakarrik aipatu nion kontua emazteari. Harrituta gelditu nintzen, oso serio hartu baitzuen, eta gehiago agertuz gero erakusteko erregutu zidan. Astebetez ez zen besterik agertu, eta atzo goizean paper hau aurkitu nuen lorategiko eguzki-erlojuaren gainean. Elsieri erakutsi nion, eta berehala zorabiatuta erori zen. Harrezkero, amets batean dagoen emakume baten itxura dauka, erdi zorabiatuta, eta beldurra etengabe dabil haren begietan. Orduan idatzi nizun eta papera bidali nizun, Holmes jauna. Ez zen poliziarri eramateko gauza, barre egingo zidaten eta; baina zuk esango didazu zer egin behar dudan. Ez naiz aberatsa; baina nire emaztetxoari arriskuren bat mehatxuka badator, nire azken txanpona ere emango nuke hura babesteko.

Gizon bikaina zen, Ingalaterrako lur zaharreko gizon horietakoa: xumea, zuzena eta atsegina, bere begi urdin handi eta zintzoekin eta aurpegi zabal eta atseginarekin. Emaztearekiko maitasuna eta harenganako konfiantza aurpegiaren bertan ageri zitzaizkion. Holmesek arreta handiz entzun zuen haren kontakizuna, eta gero denbora batez isilik egon zen pentsakor.

—Ez al duzu uste, Cubitt jauna — azkenean esan zuen—, onena litzatekeela zure emazteari zuzenean eskatzea bere sekretua zurekin parteka dezan?

Hilton Cubittek buru sendoa astindu zuen.

—Hitz emandakoa hitz emandakoa da, Holmes jauna. Elsiek kontatu nahi balit, kontatuko lidake. Bestela, ez dagokit niri haren konfiantza eskatzea.. Baina zilegi zait nire bidea hartzea, eta hartuko dut.

—Orduan, bihotzez lagunduko dizut. Lehenik eta behin, entzun al duzu zure auzoan ezezagunik ikusi dutela?

—Ez.

—Leku lasaia izango dela suposatzen dut. Aurpegi berri batek zeresana sortuko luke?

—Auzo hurbilean, bai. Baina baiditugu hainbat bainu-etxe, ez oso urruti. Eta nekazariak etxaldeak okupatzen dituzte.

—Argi dago hieroglifiko horiek esanahi bat dutela. Arbitrario hutsa bada, agian ezinezkoa izango zaigu konpontzea. Aldiz, sistematikoa bada, ez dut zalantzarik muinera iritsiko garela. Dena den, adibide hau laburregia da, eta ezin dut ezer egin; eta ekarri dizkidazun datuak lausoegiak dira ikerketa bati oinarria emateko. Nire gomendioa da Norfolkera itzultzea, erne egotea, eta berriz agertzen diren dantzan dabiltzan gizon horien kopia zehatza egitea. Penagarria da leiho-ertzean klarionaz egindakoen kopiarik ez izatea. Egin ezazu auzoko edozein ezezaguni buruzko ikerketa diskretu bat ere. Froga berriren bat biltzen duzunean, etorri berriz niregana. Hori da eman diezazukedan aholkurik onena, Hilton Cubitt jauna. Garapen berriren bat gertatzen bada, beti egongo naiz prest zu ikusteko Norfolkeko zure etxean

Elkarrizketak oso pentsakor utzi zuen Sherlock Holmes, eta hurrengo egunetan behin baino gehiagotan ikusi nuen koadernotik bere zirriborro papera hartu eta luze eta serio begiratzen ziela bertan inskribatutako figura bitxiei. Hala ere, ez zuen afera berriz aipatu handik hamabost egun ingurura arte. Arratsalde batean kalera ateratzera nindoala, atzera deitu ninduen.

—Hobe duzu hemen geratzea, Watson.

—Zergatik?

—Gaur goizean Hilton Cubitten telegrama bat jaso dut —gogoratzen duzu Hilton Cubitt, gizon dantzariena?— Hamabiak eta hogeirako iritsi behar zuen Liverpool Streetera. Edozein unetan heldu daiteke. Telegramatik ondorioztatzen dut garrantzizko gertakari berriak izan direla.

Ez genuen asko itxaron behar izan; gure Norfolkeko ezkutaria zuzenean zetorrelako geltokitik, zaldi-gurdi batek ekar diezaiokeen bezain azkar. Kezkatuta eta goibel zegoen; begi nekatuak eta zimurtutako bekokia zituen.

—Kontu honek nerbioetatik jota jarri nau, Holmes jauna—, esan zuen, bere burua besaulki batean erortzen utziz, nekatuta dagoen gizon baten gisa.—Nahikoa txarra da ikustea jende ezezagunez inguratuta zaudela, zure aurka nolabaiteko asmoa dutela jakinda; baina, gainera, horrek zure emaztea pixkanaka-pixkanaka hiltzen ari dela jakitean, haragiak eta odolak jasan dezakeena baino gehiago bihurtzen da. Itzaltzen ari da... nire begien aurrean itzaltzen.

—Zerbait esan al du dagoeneko?

—Ez, Holmes jauna, ez du ezer esan. Eta, hala ere, zenbait unetan hitz egin nahi izan duela sumatu dut, baina ez da ausartu. Laguntzen saiatu naiz; baina, agian, trakets jokatu dut eta beldurtu egin dut. Nire familia zaharrari buruz hitz egin du, konderrian dugun ospeaz, eta gure ohore garbiaz harro gaudela; eta beti iruditu zait puntu nagusira iristen ari ginela... baina, nolabait, beti desbideratu da.

—Baina zuk zeuk zerbait aurkitu duzu?

—Bai, dezente, Holmes jauna. Dantzan dabiltzan gizon horien hainbat irudi berri ekarri dizkizut aztertzeko, eta, are garrantzitsuagoa dena, gizona bera ikusi dut.

—Zer? Marrazten dituen?

—Bai, lanean harrapatu nuen. Baina dena ordenean kontatuko dizut. Zuri bisita egin ostean itzuli nintzenean, hurrengo goizean bertan ikusi nuen lehen gauza gizon dantzari berrien sail bat izan zen. Belardiaren ondoan dagoen tresna-etxolako ate beltzaren gainean marraztuta zeuden, etxeko aurrealdeko leihoetatik argi eta garbi ikus daitekeen lekuan. Hemen duzu hieroglifikoen kopia zehatza:

—Bikain! — Holmesek esan zuen—. Bikain! Jarraitu, mesedez.

—Kopia egin ondoren, markak ezabatu nituen; baina bi goiz geroago beste sail bat agertu zen. Hona hemen kopia:

Holmesek eskuak igurtzi zituen eta pozez barre egin zuen.

—Gure materiala azkar ari da pilatzen —adierazi zuen.

—Handik hiru egunera, beste mezu bat utzi zuten paper batean idatzita, eta harri-koskor baten azpian jarri zuten eguzki-erlojuan. Hemen dago. Pertsonaiak, ikusten duzunez, aurrekoaren berdin-berdinak dira. Horren ondoren itxaroten geratzea erabaki nuen; beraz, nire errebolberra atera, eta nire ikasgelan eseri nintzen, belardia eta lorategia ikusten dituen gelan. Goizeko biak aldera leiho ondoan eserita nengoan, dena ilun, kanpoko ilargi-argia salbu, eta bat-batean urratsak entzun nituen atzean; nire emaztea zen, gaueko soinekoaren gainean bata zuela. Ohera joateko erregutu zidan. Zintzo esan nion jakin nahi nuela nor zen halako txorakeriak egiten zizkigun hura. Erantzun zidan zentzugabeko txantxa bat zela, eta ez niola kasurik egin behar.

—Benetan gogaitzen bazaitu, Hilton, bidaiatzera joan gaitezke biok, eta horrela traba hau saihestuko dugu —esan zidan.

—Zer? Txantxazale batek gure etxetik bota gaitzala? —esan nion—. Herri osoa barrez lehertuko litzateke gurekin!

—Beno, zatoz ohera —esan zuen berak—, eta goizean hitz egingo dugu.

—Bat-batean, hori esaten ari zela, bere aurpegi zuria are zuriago ikusi nuen ilargiaren argitan, eta bere eskua nire sorbaldaren gainean tinkatuta geratu zen. Zerbait mugitzen ari zen tresna-etxolaren itzalean. Irudi ilun bat ikusi nuen, narras mugitzen zena, izkina inguratu eta ate aurrean makurtu zena. Pistola hartuta kanpora ateratzera nindoala, emazteak besoak nire inguruan bota zituen eta indar ikaragarri eutsi zidan. Baztertzan saiatu nintzen, baina desesperazioz heldu zidan. Azkenean askatu nintzen, baina atea ireki eta etxolara iritsi

nintzenerako izakia desagertua zen. Hala ere, bere presentziaren arrastoa utzia zuen; izan ere, atean berriz agertu zen jadanik birritan ikusitako gizon dantzarien konbinazio bera, paper horretan kopiatu dudana. Nahiz eta lursail osoa miatu nuen, ez zegoen beste arrastorik inon. Eta, hala ere, gauzarik harrigarriena da denbora guztian han egon behar zuela; izan ere, goizean atea berriro aztertu nuenean, jadanik ikusitako konbinazioaren azpian beste irudi batzuk ere marraztuak zituen.

—Ba al duzu azken marrazki hori?

—Bai; oso laburra da, baina kopia egin nuen, eta hemen duzu.

Berriz ere paper bat atera zuen. Dantza berria honelakoa zen:

—Esadazu — Holmesek esan zuen, eta haren begiek erakusten zuten oso hunkituta zegoela— : lehenengoaren osagarri hutsa zen, ala guztiz bereizia zirudien?

—Ateko beste leku batean zegoen.

—Bikain! Hori da, hain zuzen, gure helburu nagusia. Itxaropenez betetzen nau. Orain, Hilton Cubitt jauna, mesedez, jarraitu zure kontakizun interesgarriarekin.

—Ez dut beste ezer esateko, Holmes jauna; gau hartan nire emaztearen haserretu nintzela ez ezik, ezkutatuta zebilen zital hura harrapatu ahal izan nuenean ni atxiki ninduelako. Berak esan zuen beldur zela niri zerbait gerta ziezadakeelako. Une batez bururatu zitzaidan, agian, benetan beldur zela ez ni zauritu ahal nintzatekelako, baizik eta bera min hartuta atera ahal zelako; ez nuelako zalantzarik izan nire emazteak bazekiela nor zen gizon hura eta zer esan nahi zuten seinale bitxi horiek. Baina bada tonu bat nire emaztearen ahotsean, Holmes jauna, eta begirada bat haren begietan, zalantza debekatzen duena, eta ziur nago, hain zuzen ere, neure segurtasuna izan zela haren gogoan zegoena. Hori da guztia, eta orain zure aholkua nahi dut, zer egin behar dudan jakiteko. Nire joera hauxe litzateke: nire baserriko mutiletatik dozena erdi bat zuhaixken artean ezkutatzea, eta hurrengo batean gizon hori agertzen denean halako jipoi bat ematea, etorkizunean bakean utz gaitzan.

—Beldur naiz kasua sakonegia delako halako erremedio xumeetarako —esan zuen Holmesek—. Zenbat denboraz gera zaitezke Londresen?

—Gaur bertan itzuli behar dut. Ez nuke nire emaztea gauez bakarrik utziko ezergatik ere. Oso urduri dago, eta itzultzeko erregutu dit.

—Arrazoi duzula esatera ausartzen naiz. Baina geratu ahal izan bazina, egun bat edo bi barru zurekin itzuli ahal izango nintzatekeen. Bitartean, dokumentu hauek utziko dizkidazu, eta uste dut oso litekeena dela laster zu bisitatzea eta zure kasuari argi pixka bat ematea.

Sherlock Holmesek bere lasaitasun profesionalari eutsi zion gure bisitaria joan zen arte; baina nik, hain ongi ezagutzen nuenez, erraz ikusten nuen sakonki hunkituta zegola. Hilton Cubitten bizkar zabala atetik desagertu bezain pronto, nire kidea mahaira oldartu zen, gizon dantzarien paper-zati guztiak aurrean zabaldu zituen, eta kalkulu korapilatsu eta landu bati ekin zion.

Bi orduz begira egon nintzaion, papera orriz orri zenbaki eta hizkiz betetzen zituen bitartean, bere zereginean hain murgildurik, non, bistakoa zen, nire presentzia ere ahaztua zuela. Batzuetan aurrera egiten zuen, eta txistu edo kanta egiten zuen lanean; beste batzuetan, nahastuta geratzen zen, eta tarte luzez esertzen zen bekokia zimurtuta eta begirada hutsarekin. Azkenean, pozaren garrasiz aukitik salto egin, eta eskuak elkarri igurtziz ibili zen gelan gora eta behera. Ondoren, telegrama luze bat idatzi zuen kable-inprimaki baten gainean. —Honi ematen diodan erantzuna espero dudana bada, oso kasu polita izango duzu zure bildumara gehitzeko —esan zuen—. Uste dut bihar Norfolkera joan ahal izango dugula, eta gure lagunari bere atsekabearen sekretuari buruzko berri oso zehatzak eraman.

Onartzen dut jakin-minak bete ninduela, baina banekien Holmesi bere aurkikuntzak bere momentuan eta bere erara azaltzea gustatzen zitzaioala; beraz, itxaron egin nuen, berak egoki ikusten zuen arte bere konfiantza hartzeko

Baina erantzun-telegrama hartan atzerapena egon, eta bi eguneko ezinegona etorri zen ondoren, zeinetan Holmesek belarriak tente jartzen zituen ate-txirrira jotzen zen bakoitzean. Bigarren eguneko arratsaldean Hilton Cubitt-en gutun bat iritsi zen. Dena lasai zegoen berarentzat, baina goiz hartan eguzki-erlojuaren oinarrian inskripzio luze bat agertu zen. Horren kopia bat erantsi zuen, hemen erreproduzitzen dena:

Holmes, zenbait minutuz, erliebe grotesko haren gainean makurtu zen, eta, gero, bat-batean, harrিতuta eta larrিতuta zutitu zen. Bere aurpegia kezkaz beterik zegoen.

—Kontu hau nahikoa utzi dugu luzatzen —esan zuen—. Ba al da trenik gaur gauean North Walshamera joateko?

Ordutegia begiratu nuen. Azkena joan berria zen.

—Orduan goiz gosalduko dugu eta goizeko lehenengoan hartuko dugu—, esan zuen Holmesek—. Gure presentzia premiazkoa da. Hemen dugu espero genuen kablegrama. Une bat, Hudson anderea — baliteke erantzunik izatea—. Ez, hori espero nuen bezalaxe da. Mezu honek are argiago uzten du ez dugula ordu bat ere galdu behar Hilton Cubitti egoeraren berri ematen; izan ere, oso sare bitxi eta arriskutsu batean harrapatuta dago gure Norfolk-eko jaun xumea.

Eta hala izan zen, egia esan. Iruditu zitzaidan niretzat hasiera batean umekeria eta bitxia zirudien istorio baten amaiera ilunera iristen nengoela, eta berriz ere sumatzen dut orduan bete ninduen izu eta atsekabea. Nahi nuke nire irakurleei amaiera argiago bat eman ahal izatea; baina hauek dira gertakarien kronikak, eta jarraitu egin behar dut egun batzuetan Ridling

Thorpe Manor Ingalaterra osoan ezagun bihurtu zuen gertakarien kate bitxiaren krisi iluneraino.

North Walsham-en jaitsi eta gure helmuga aipatu bezain laster, geltokiko arduraduna azkar hurbildu zitzaigun. —Uste dut Londresetik etorritako detektibeak zaretela ezta?— esan zuen.

Ezusteko keinua igaro zen Holmesen aurpegian.

—Zerk pentsarazi dizu halakorik?

—Norwich-eko Martin inspektorea handik pasatu berri delako. Baina agian zirujauak zarete. Ez dago hilda —edo ez behintzat azken berrien arabera. Agian salbatzeko garaiz zaudete, urkamendirako izan arren.

Holmesen bekokia kezka bete zen.

—Ridling Thorpe Manorrera goaz —esan zuen—, baina ez dugu han gertatutakoaren berririk jaso.

—Kontu izugarria da — geltokiko arduradunak esan zuen—. —Tiroz hil dituzte biak, bai Hilton Cubitt jauna, bai bere emaztea. Emazteak tiro egin zion, eta gero bere bururi—hala diote zerbitzariak. Hura (Hilton) hilda dago, eta emakumearen bizitzagatik ez dago itxaropen handirik. Ene, ene! Norfolk-eko familiarik zaharretako bat, eta ohore handienekotako bat.

Hitzik esan gabe, Holmes presaka zalgurdi batera igo zen, eta zazpi kilometroko ibilbide luzean ez zuen ezpainik zabaldu. Gutxitan ikusi izan dut hain erabat etsita. Hiriburutik egin genuen bidaia osoan kezkatuta egon zen, eta ohartu nintzen goizeko egunkariak arreta handiz aztertu zituela; baina orain bere beldurrik okerrenaren gauzatze honek tristura huts batean murgildu zuen. Atzera makurtu zen eserlekuan, pentsamendu ilunetan galduta. Hala ere, inguruan bazegoen zerbait interesgarria: Ingalaterrako beste edozein bezain landa berezi bat zeharkatzen ari ginen, non etxe sakabanatu batzuek gaur egungo biztanleria ordezkatzeko zuten, eta, non, paisaia berde lauan zehar, dorre karratudun eliza erraldoiak altxatzen ziren alde guztietan, antzinako East Angliaren distira eta oparotasuna gogoraraziz. Azkenik, Norfolk-eko kostaldeko ertz berdean Itsaso Alemanaren ertz morea agertu zen, eta gidariak bere ezpatarekin bi egur eta adreiluzko fatxada zahar seinalatu zituen, zuhaitz-talde baten artetik ageri zirenak. Hori Ridling Thorpe Manor da —esan zuen—.

Sarrerako ate nagusira hurbiltzean, aurrean ikusi nuen, tenis-belardiaren alboan, tresna-etxe beltza eta eguzki-erlojuaren ondoan, zeinekin hain lotura bitxiak genituen. Gizon txukun eta arin bat, bibote txukuna eta jarrera azkar eta ernekoa zuena, zaldi-gurdi altu batetik jaitsi berria zen. Bere burua Norwich-eko polizia-kidegoko Martin inspektore gisa aurkeztu zuen, eta dezente harrিতa geratu zen nire lagunaren izena entzun zuenean.

—Holmes jauna, krimena goizaldeko hiruretan gertatu da! Nola jakin duzu Londresetik eta nola iritsi zara nik baino lehen?

—Aurreikusi nuen. Saihestu nahian etorri naiz.

—Orduan, guk ez dakigun froga garrantzitsuagoa izango duzu, bikote oso elkartzat jotzen baitzituzten.

—Gizon dantzarien froga besterik ez dut — Holmesek esan zuen—. Geroago azalduko dizuet. Bitartean, tragedia hau ekiditeko beranduegi denez, nire ezagutza baliatu nahi dut justizia egin dadin bermatzeko. Nirekin elkarlanean arituko zara, ala nahiago duzu bakarka jardun dezadan?

—Ohore handia litzateke zurekin batera lan egitea, Holmes jauna —inspektoreak serio esan zuen.

—Orduan, atsegin handiz entzungo nituzke frogak, eta etxea aztertuko dut atzerapenik gabe.

Martin inspektoreak zentzuz jokatu zuen nire lagunari bere erara jarduten uztean, eta emaitzak arretaz jasotzera mugatu zen. Bertako zirujaua, ile zuriko gizon zahar bat, Hilton Cubitt andrearen gelatik jaitsi berria zen, eta bere zauriak larriak zirela jakinarazi zuen, baina ez halabeharrez hilgarriak. Balak garunaren aurrealdea zeharkatu zuen, eta, ziurrenik, denbora igaroko zen konortea berreskuratu ahal izateko. Emakumea tirokatu ote zuten edo bere buruari tiro egin ote zion galdetuta, ez zen ausartu iritzi erabakiturik adieraztera. Ziur aski, bala oso gertutik jaurti zen. Gela hartan pistola bakarra aurkitu zuten, eta haren bi kanoiak hutsik zeuden. Hilton Cubitt jauna bihotzetik tiro eginda zegoen. Posiblea zen,

halaber, hark emaztea tirokatzea eta gero bere burua, edo emakumea izatea erruduna, errebolberra bien erdian lurtean baitzegoen.

—Mugitua izan da? —galdetu zuen Holmesek.

—Ez dugu ezer mugitu, emakumea izan ezik. Ezin genuen lurtean zaurituta utzi.

—Zenbat denbora daramazu hemen, doktore?

—Goizeko lauretatik.

—Beste inor?

—Bai, hemen dagoen polizia.

—Eta ez duzue ezer ukitu?

—Ezer ez.

—Diskrezio handiz jokatu duzue. Nork deitu zaituzte?

—Neskameak, Saunders.

—Bera izan al zen alarma eman zuena?

—Bera eta King andrea, sukaldeko sukaldaria.

—Non daude orain?

—Sukaldean, uste dut.

—Orduan, uste dut hobe dugula haien istorioa berehala entzutea.

Zurezko paneldun eta leiho handidun antzinako areto nagusia ikerketa-epaitegi bihurtu zen. Holmes aulki zahar handi batean eseri zen, eta bere begi zorrotzek diz-diz egiten zioten bere aurpegi nekatutik. Haietan irakur zitekeen asmo irmoa: bere bizitza ikerketa honi eskaini nahi zion, salbatu ezin izan zuen bezeroa behingoz mendekatu arte. Martin inspektorea, herriko mediku zaharra, ni neu eta herriko polizia geldo bat osatzen genuen talde bitxi hura.

Bi emakumeek argi eta garbi eman zuten beren testigantza. Leherketa baten soinuak esnatu zituen, eta minutu bat geroago bigarren batek jarraitu zuen. Gela banatan zeuden, eta King andrea Saundersen gelara joan zen korrika. Elkarrekin jaitsi ziren eskaileretan behera. Ikasketa gelako atea irekita zegoen, eta mahai gainean kandela bat zegoen piztuta. Haien nagusia lurrean etzanda zegoen, aurpegia behera zuela gelaren erdian. Hilda zegoen. Leihoaren ondoan bere emaztea makurtuta zegoen, burua hormaren kontra zuela. Oso zaurituta zegoen, eta aurpegiaren alde bat odolez estalita zuen. Arnasa astuna zuen, baina ezin zuen ezer esan. Pasabidea eta gela bera kez eta bolbora-usainaz beteta zeuden. Leihoa, zalantzarik gabe, barrutik itxita eta giltzatuta zegoen. Bi emakumeek horretan ziurtasun osoa zuten. Berehala deitu zituzten medikua eta polizia. Ondoren, morroiaren eta ukuiluko mutilaren laguntzaz, zauritutako andrea bere gelara eraman zuten. Biek, senar-emazteek, ohea partekatzen zuten. Emazteak pijama zeraman; senarrak, aldiz, pijama zeraman eta gainean bata bat. Ez zen ezer mugitu ikasketa gelan. Dakiten neurrian, ez zen inoiz eztabaidarik egon senar-emazteen artean. Beti bikote oso bateratutzat hartu zituzten.

Hauek izan ziren zerbitzarien testigantzaren puntu nagusiak. Martin inspektoreari erantzunez, argi zuten ate guztiak barrutik itxita zeudela eta inork ezin zuela etxetik ihes egin. Holmesi erantzunez, biek gogoratzen zuten bolbora-usaina berehala nabaritu zutela beren goiko geletatik irten zirenean. —Gertakari hori arreta handiz azpimarratzea gomendatzen dizut— esan zion Holmesek bere lankide profesionalari. Eta orain uste dut prest gaudela gelaren azterketa sakona egiteko.

Ikasketa gela txikia zen, hiru aldeetatik liburuz estalia, eta idazmahaia leiho arrunt baten aurrean zuen, lorategira begira. Gure lehen arreta zoritxarreko Hilton Cubitt jaunaren gorpuan jarri zen. Bere arropa nahasiak adierazten zuen presaka esnatu zutela. Bala aurretik jaurti zioten, eta gorputzean geratu zen bihotza zeharkatu ondoren. Bere heriotza berehalakoa eta

minik gabekoa izan zen. Ez zegoen bolbora-arrastorik ez bata gainean ez eskuetan. Herriko zirujauaren arabera, andreak aurpegian orbanak zituen, baina ez eskuetan.

«Azken horren faltak ez du zer esan nahi, nahiz eta haren presentziak dena esan zezakeen — Holmesek esan zuen—. Gaizki doitutako kartutxo baten hautsa atzerantz jaurtitzen ez bada, tiro asko jaurti daitezke aztarnarik utzi gabe. Cubitt jaunaren gorpua kendu daitekeela proposatuko nuke. Doktore jauna, ez duzu lortu emakumea zauritu zuen bala berreskuratzea?

—Ebakuntza larria beharko da horretarako. Baina oraindik lau kartutxo daude errebolberrean. Bi jaurti dira eta bi zauri eragin dira, beraz, bala bakoitza kontuan har daiteke.

—Hala dirudi —esan zuen Holmesek—. Agian leihoaren ertza jo duen bala ere azaldu dezakezu?

Bat-batean jiratu zen, eta bere hatz luze eta meheak leiho-azpiko egur-azalean egindako zulo batera seinalatzen zuen, behealdetik hazbete batera.

—Ene Jainkoa! —oihukatu zuen inspektoreak—. Nola ikusi duzu hori?

Bilatu dudalako.

—Miragarria! —esan zuen herriko medikuak—. Arrazoi duzu, jauna. Orduan hirugarren tiro bat izan da, eta, beraz, hirugarren pertsona bat egon behar izan da. Baina nor izan zitekeen hura, eta nola egin zuen ihes?

—Hori da orain argitu behar dugun auzia —esan zuen Sherlock Holmesek—. Gogoratzen duzu, Martin inspektore, zerbitzariak esan zutenean beren gelatik irten zirenean berehala bolbora-usaina nabaritu zutela, nik esan nuela puntu hori oso garrantzitsua zela?

—Bai, jauna; baina ez nuen guztiz ulertu.

—Horrek iradokitzen zuen tiroaren unean leihoa eta atea irekita egon zirela. Bestela, bolbora-keak ezin zen hain azkar hedatu etxean zehar. Gelan korronte bat behar zen horretarako. Hala ere, atea eta leihoa denbora labur batez soilik egon ziren irekita.

—Nola frogatzen duzu hori?

—Kandela ez delako urtu.

—Bikaina! —oihukatu zuen inspektoreak—. Bikaina!

—Leihoa tragediaren unean irekita zegoela ziurtzat hartuta, kanpotik barrura tiro egin zuen hirugarren pertsona bat egon zitekeela pentsatu zuen. Pertsona horri zuzendutako tiroak leiho-markoa jo zezakeen. Begiratu nuen, eta han zegoen, zalantzarik gabe, balaren arrastoa!

—Baina nola itxi eta giltzatu zen leihoa?

—Emakumearen lehen sena leihoa ixtea eta giltzatzea izango zen. Baina, ai! zer da hau?

Ikasketa mahi gainean zegoen emakume baten poltsa zen — krokodilo-laruzko eta zilarrezko poltsa txukun txiki bat. Holmesek ireki eta mahai gainera bota zuen edukia. Ingalaterrako Bankuko berrogeita hamar liberako hogeitaz bilette zeuden goma elastiko batekin lotuta — besterik ez.

—Hau gorde egin behar da, epaiketan agertuko baita —esan zuen Holmesek, poltsa eta edukia inspektoreari emanez—. Orain beharrezkoa da hirugarren bala honi argia ematen saiatzea; argi dago egurraren zatizetik, gelaren barrutik jaurtia izan dela. King andrea, sukaldaria, berriro ikusi nahiko nuke... Esan duzu, King andrea, eztanda handi batek esnatu zintuela. Hori esatean, bigarrena baino ozenagoa iruditu zitzaizula esan nahi zenuen?

—Beno, jauna, lo nengoen eta esnatu ninduen, beraz, zaila da ziur esatea. Baina oso ozena iruditu zitzaidan.

—Ez duzu uste bi tiro ia une berean izan zitezkeenik?

—Ezin dut ziur esan, jauna.

—Uste dut hala izan zela, zalantzarik gabe. Uste dut, Martin inspektore, gela honek eman dezakeen guztia jada agortu dugula. Nirekin etortzen bazara, ikusiko dugu ea lorategiak zer froga berri eskain dezakeen.

Lore-ohet bat ikasgelaren leihoraino iristen zen, eta guztiok oihera egin genuen hurbiltzean. Loreak zapalduta zeuden, eta lur biguna oin-aztarna handiz beteta zegoen. Oin handi eta maskulinoak ziren, behatz luze eta zorrotz bereziak zituztenak. Holmes belar eta hostoen

arteetan ibili zen, zauritutako hegazti baten atzetik doan zakur baten moduan. Ondoren, poz-oihera batekin makurtu eta kobrea koloreko zilindro txiki bat jaso zuen.

—Hala uste nuen —esan zuen—; errebolberrak kartutxo-irtengailua zuen, eta hemen dago hirugarren kartutxoa. Uste dut, Martin inspektore, gure kasua ia osatuta dagoela.

Herriko inspektorearen aurpegian Holmesen ikerketen aurrerapen azkarrak eragindako harridura handia ikusi zitekeen. Hasieran bere posizioa aldarrikatzeko joera izan zuen, baina orain miresmenez gainezka zegoen eta Holmesen atzetik zalantzarik gabe jarraitzeko prest.

—Nori diozu susmoa? —galdetu zuen.

—Geroago azalduko dut. Arazo honetan badira oraindik zenbait puntu ez dizkizuedanak. Hain urrun iritsi naizenez, hobe dut nire bidetari jarraitzea eta gero dena argitzea behin betiko.

—Nahi duzun bezala Holmes jauna, betiere gure gizona harrapatzen badugu.

—Ez dut misteriorik sortu nahi, baina ekintzaren unean ezinezkoa da azalpen luze eta konplexuak ematea. Hari guztiak esku artean ditut. Emakume honek kontzientzia inoiz berreskuratzen ez badu ere, atzoko gertaerak berreraiki ditzakegu eta justizia egingo dela ziurtatu. Lehenik eta behin jakin nahi dut ea inguru honetan “Elrige’s” izeneko ostaturik baden.

Zerbitzariei galdetu zitzaien, baina inork ez zuen halakorik entzun. Ukuiluko mutilak argitu zuen East Ruston norabidean, kilometro batzuetara, izen horretako nekazari bat bizi zela.

—Bakartaia al da baserria?

—Oso bakartia, jauna.

—Agian oraindik ez dute jakin hemen gauean gertatutako guztia, ezta?

—Agian ez, jauna.

Holmesek une batez pentsatu zuen, eta orduan irribarre bitxi bat agertu zitzaion aurpegian.

—Zaldia prestatu, mutila —esan zuen—. Elrige’s baserrira ohar bat bidali beharko duzu.

Poltsikotik gizon dantzarien hainbat orri atera zituen. Horiek aurrean zituela, denbora batez lan egin zuen ikasketa-mahaian. Azkenean, ohar bat eman zion mutilari, eta agindu zion hartzaileari zuzenean emateko, eta ez egiteko inolako galderarik. Idazkera irregular eta desordenatua ikusi nuen oharraren kanpoaldean Holmesen ohiko idazkera zehatz eta ordenatuaren oso bestelakoa zena. Hartzailea Abe Slaney zen, Elrige’s Farm, East Ruston, Norfolk.

—Uste dut, inspektore —esan zuen Holmesek—, ongi egingo duzula eskolta bat telegrafiatzen baduzu, nire kalkuluak zuzenak badira, preso arriskutsu bat eraman beharko baituzu eskualdeko kartzelara. Oharra daraman mutilak zure telegrama bidal dezake. Arratsaldeko trenik bada hirira, Watson, uste dut egokia litzatekeela hartzea; interes handiko analisi kimiko bat amaitzeko daukat, eta ikerketa hau amaierara azkar gerturatzen ari da.

Gaztea oharrarekin bidali zutenean, Sherlock Holmesek bere jarraibideak eman zizkien zerbitzariei. Norbait Mrs Hilton Cubitt ikustera etorriko balitz, ez da haren egoerari buruzko informaziorik emango, baina berehala agertuko da egongelan. Puntu horiek oso irmo azpimarratu zituen. Azkenik egongelara joan ginen, eta Holmesek esan zuen lana jada gure eskuetatik kanpo zegoela, eta itxaron egin behar genuela. Medikua bere pazienteengana joana zen, eta inspektorea eta biok bakarrik geratu ginen.

—Uste dut ordu bat modu interesgarri eta baliagarrian pasatzen lagundu diezazukedala —esan zuen Holmesek, aulkia mahaira hurbilduz eta bere aurrean dantzan ari ziren gizonen marrazkiak zabalduz—. Watson lagun maitea, zure jakin-mina hain denbora lusez ase gabe utzi izanagatik zor dizut barkamena. Eta zuri, inspektore, kasu osoa azterketa profesional berezi bat irudituko zaizu. Lehenik eta behin azalduko dizuet Hilton Cubitt jaunak Baker

Baker Streeten nirekin izandako aurreko kontsulten berri eman zuen. Ondoren, lehenago azaldu diren gertakariak laburki gogorarazi zituen.

—Hemen ditut aurrean irudi bitxi hauek, zeinei norbaitek irribarre egin ziezaiekeenak hain tragedia latza izan ez balute. Sekretuzko idazketa mota guztiak aski ezagunak ditut, eta neu naiz gai honi buruzko monografia xume baten egilea, non ehun eta hirurogei zifra desberdin aztertu ditudan; baina aitortu behar dut hau guztiz berria dela niretzat. Sistema asmatu dutenen helburua, dirudienez, sinbolo hauek mezu bat adierazten dutela ezkutatzea izan da, baita haurrek egindako marrazki hutsen itxura ematea.

—Hala ere, behin aitorturik sinboloek letrak ordezkatzeko zituztela, eta era guztietako idazki sekretuetan gidatzen gaituzten arauak aplikaturik, irtenbidea nahiko erraza zen. Aurkeztu zidaten lehen mezua hain laburra izan zen, ezen ezinezkoa egin baitzitzaidan nolabaiteko konfiantzaz ikurrak E adierazten zuela esatea baino. Jabetzen zaretenez, E hizkirik ohikoena da alfabeto ingelesean, eta hainbesteko nagusitasuna du, non esaldi labur batean ere gehienetan aurkitzea espero izatekoa da. Lehen mezuko hamabost ikurretatik lau berdinak ziren, eta, beraz, zentzuzkoa zen hori E letratzat hartzea. Egia da kasu batzuetan irudiak bandera bat zeramala eta beste batzuetan ez, baina banaketaren arabera litekeena zen banderek esaldia hitzetan zatitzeko balio izatea. Hipotesi gisa onartu nuen hori, eta E hori sinbolo batek ordezkatzeko zuela ondorioztatu nuen.

—Baina orduan etorri zen ikerketaren benetako zailtasuna. E ondorengo letren ordena ez dago batere argi ingelesez, eta inprimatutako orri batean ikus daitekeen maiztasuna esaldi labur batean erabat alda daiteke. Oro har, T, A, O, I, N, S, H, R, D eta L dira maiztasun-ordena nagusian agertzen direnak; baina T, A, O eta I oso parean daude, eta konbinazio guztiak probatzea amaigabeko lana litzateke. Beraz, material berriaren zain gelditu nintzen. Hilton Cubitt jaunarekin izan nuen bigarren elkarrizketan beste bi esaldi labur eta mezu bat eman ahal izan zizkidan; badirudi, banderarik ez zegoenez, hitz bakarra zela. Hemen dituzu sinboloak. Orain, bost letrako hitz batean, dagoeneko E bi aldiz agertzen da bigarren eta laugarren posizioan. “sever”, “lever” edo “never” izan liteke. Zalantzarik gabe, azken hau, eskaera bati emandako erantzun zen, eta egoerak ere adierazten zuen emakumeak idatzitako erantzuna zela. Hori onartuta, orain esan dezakegu sinbolo hauek N, V eta R letrak ordezkatzeko zituztela.

—Hala ere, orduan ere zailtasunak nituen oraindik, baina ideia on batek beste hainbat letra eskuratzeko aukera eman zidan. Bururatu zituztanean, mezu hauek emakumearen gaztaroko norbaitek bidali zituela, eta bi E eta tartean hiru letra zituen konbinazio batek “ELSIE” izena adieraz dezakeela. Egiaztatu nuenean, halako konbinazio bat mezuaren amaieran hiru aldiz errepikatzen zela ikusi nuen. Beraz, argi zegoen Elsierako deia zela. Horrela L, S eta I lortu nituen. Baina zer dei mota izan zitekeen? “Elsie”ren aurretik lau letra baino ez zeuden, eta “E”-z amaitzen zen. Hitz hori “COME” izan behar zela ondorioztatu nuen. Beste aukera guztiak probatu nituen, baina ez nuen egokirik aurkitu. Horrela C, O eta M ere identifikatu nituen, eta

lehen mezua berriro aztertzeko gai izan nintzen, hitzetan banatuz eta oraindik ezezagunak ziren sinboloen ordezkariak jarri. Honela geratu zen:

. M . ERE . E SL . NE .

—Orain, lehen letra A izan daiteke soilik, eta aurkikuntza oso baliagarria da, esaldi labur honetan hiru aldiz agertzen delako; eta H ere agerikoa da bigarren hitzean. Horrela geratzen da:

AM HERE A. E SLANE.

—Edo, izenaren hutsune nabariak betez:

AM HERE ABE SLANEY

— Orain letra asko nituen eta bigarren mezua ere konfiantzaz azter nezakeen:

A. ELRI . ES

—Hemen zentzua emateko T eta G jarri behar izan nituen hutsuneetan, eta izena agian etxe edo ostatu batena zela ondorioztatu nuen.

Martin inspektoreak eta biok arreta handiz entzun genuen nola lortu zituen nire lagunak zailtasunen gaineko agintea hain erabatekoa izatera eramanez zuten emaitzak.

—Zer egin zenuen orduan, jauna? —galdetu zuen inspektoreak.

—Arrazoi guztiak nituen pentsatzeko Abe Slaney hau amerikarra zela, Abe izen laburtua amerikar erabilerakoa baita, eta Amerikatik etorritako gutuna izan zen arazo osoaren hasiera. Halaber, uste nuen kontu honetan sekretu kriminal bat zegoela. Emakumearen iraganari egindako aipamenek eta senarrarekin konfiantza partekatzeari uko egiteak norabide bera adierazten zuten. Horregatik nire lagun Wilson Hargreave-ri, New Yorkeko Polizia Bulegokoari, telegrama bidali nion; behin baino gehiagotan baliatu du nire Londresko krimenari buruzko ezagutza. Galde egin nion ea Abe Slaney izena ezaguna zitzaien. Hona bere erantzuna: “Chicagoko gaizkile arriskutsuena.” Eta erantzun hori jaso nuen arratsalde berean, Hilton Cubittek Slaneyren azken mezua bidali zidan. Ezagutzen genituen letrekin honela geratu zen:

ELSIE . RE. ARE TO MEET THY GO.

—P eta D bat gehitzeak argi utzi zuen gaizkilea konbentzimendutik mehatxura igarotzen ari zela, eta Chicagoko gaizkileen ezagutzak pentsarazi zidan ekintza azkarra izan zitekeela. Berehala Norfolkera etorri nintzen nire lagun Watson doktoarearekin, baina, zoritxarrez, beranduegi zen jada gertatutakoa saihesteko.

—Ohore bat da zurekin kasu hau lantzea —esan zuen inspektoreak bero—. Baina barkatuko didazu zintzotasunez hitz egiten badut. Zuk zeure buruari bakarrik erantzuten diozu, baina nik

nire nagusiei erantzun behar diet. Abe Slaney hau, Elrige's-en bizi dena, benetan hiltzailea bada eta hemen ni eserita nagoen bitartean ihes egiten badu, arazo larriak izango nituzke.

—Ez zaitetz kezkatu. Ez da ihes egiten saiatuko.

—Nola dakizu?

—Ihes egitea erruduntasunaren aitortza litzateke.

—Orduan goazen atxilotzera.

—Nik espero dut hemen bertan agertzea edozein unetan.

—Baina zergatik etorriko litzateke?

—Gutun bat idatzi diodalako eta etortzeko eskatu diodalako.

—Baina hau sinestezina da, Holmes jauna! Zergatik etorriko litzateke halako eskari bati erantzunez? Ez al luke susmoa piztuko eta ihes eginaraziko?

—Badakit gutuna nola idatzi —esan zuen Sherlock Holmesek—. Izan ere, oso oker ez banago, hemen dugu jauna bera sarrerako bidean gora

Gizon bat etxeko bidean gora zihoan. Tipoa altua zen, itxura onekoa, trajez grisez jantzia; Panama kapela zeraman, bizar beltz zorrotza eta sudur handia zuen. Makila astinduz ibiltzen zen, eta konfiantza handiz jo zuen txirrina. Ateko txirrina indarrez jo zuen.

—Uste dut, jaunok —esan zuen Holmesek lasai—, hobe dugula atearen atzean kokatzea. Halako gizonekin kontu handiz jokatu behar da. Eskuburdinak beharko dituzu, inspektore. Utzidazu hitza niri.

Isil-isilik itxaron genuen minutu batez — inoiz ahazten ez den minutu horietako bat. Orduan atea ireki zen, eta gizona sartu zen. Berehala Holmesek pistola bat jarri zion buruan, eta Martinek eskuburdinak jarri zizkion eskuetan. Hain azkar eta trebe gertatu zen dena, ezen gizona ez baitzen konturatu ere egin eraso egin ziotela. Haserre begiratu zigun, begi beltz sutsuekin, eta barre mingotsa egin zuen.

—Beno, jaunok, oraingoan harrapatu nauzue. Badirudi arazo serio batean sartu naizela. Baina Mrs Hilton Cubitten gutun bati erantzunez etorri naiz. Ez esan bera dela honen parte... ez esan ni harrapatzeko tranpa batean lagundu duela!

—Mrs Hilton Cubitt oso zaurituta dago, eta hil zorian dago.

Gizonak negar garrasi latza egin zuen, etxe osoan entzun zena.

—Erotuta zaude! —oihukatu zuen gogor—. Hura ez zen zauritua izan, bera baizik! Nork egingo lioke min Elsie txikiari? Mehatxatu egin nuen, Jainkoak barka nazala, baina ez nioke ile bakar bat ukituko! Esaidazue ez dagoela zaurituta!

—Bere senarraren gorpuaren ondoan aurkitu zuten, oso zaurituta.

Gizona sofara erori zen, eta aurpegia esku kateatuetan ezkutatu zuen. Bost minutuz isilik egon zen. Ondoren, berriro altxatu eta etsipen hotzarekin hitz egin zuen.

—Ez dut ezer ezkutatzeko, jaunok —esan zuen—. Senarra tirokatu badut, hark ere tiro egin zidan; horretan ez dago hilketarik. Baina uste baduzue emakume horri min egin ahal izan diodala, orduan ez duzu ez ni ez bera ezagutzen. Munduan ez da ni baino gehiago maite duen gizonik. Eskubidea nuen berarentzat; urte asko lehenago aginduta zegoen niretzat. Nor zen ingeles hori gure artean sartzeko? Nik lehenago nuen eskubidea, nirea aldarrikatzen ari nintzen besterik ez.

—Zure eraginetik ihes egin zuen zure benetako izaera ezagutu zuenean—esan zuen—, Holmesek zorrotz. Amerikatik ihes egin zuen zuregandik urruntzeko, eta Ingalaterran gizon zintzo batekin ezkondu zen. Zuk jarraitu egin zenion, atzetik ibili zinen etengabe, eta haren bizitza infernu bihurtu zenuen, maite eta errespetatzen zuen senarra uztera behartzeko, zurekin ihes egin zezan — beldur eta gorroto zintuen gizon horrekin. Azkenean, gizon duin baten heriotza eragin duzu eta haren emaztea bere buruaz beste egitera bultzatu. Hori da zure ibilbidea auzi honetan, Abe Slaney jauna, eta legearen aurrean erantzun beharko duzu horregatik.

—Elsie hiltzen bada, ez zait ezer axola zer gertatzen den nirekin—esan zuen amerikarrak—. Eskuan zuen paper zimurtu bat begiratu zuen. Begira, jauna —oihukatu zuen—, ez zabilta honekin beldurtzen saiatzen, ezta? Emakumea zuk diozun bezain larri zaurituta badago, nork idatzi du hau? — eta mahai gainera bota zuen.

—Nik idatzi nuen zu hona ekartzeko.

—Zuk? Ez zen inor mundu osoan gizon dantzarien kodea ezagutzen zuena. Nola idatzi duzu?

—Gizon batek asmatu dezakeena beste batek aurki dezake —esan zuen Holmesek—. Norwich-era eramango zaituen zaldi-gurdi bat dago, Slaney jauna. Baina bitartean, egindako kaltearen ordain txiki bat egiteko aukera duzu. Badakizu Hilton Cubitt andrea bere senarraren hilketaren susmopean egon dela? Eta nire presentziari eta nuen informazioari esker bakarrik libratu dela salaketatik? Gutxienez zor diozuna da mundu guztiari argi uztea ez zuela inolako erantzukizunik izan, zuzenean edo zeharka, haren amaiera tragikoan.

—Ez dut hoberik nahi —esan zuen amerikarrak—. Uste dut nire defentsarik onena egia esatea dela.

—Ohartarazi behar dizut zure aurka erabiliko dela —esan zuen inspektoreak—, britainiar zuzenbidearen bidezko jarrerarekin.

Slaneyk sorbaldak altxatu zituen.

—Arriskatuko dut —esan zuen—. Lehenik eta behin, ulertu behar duzue emakume hau txikitatik ezagutzen dudala. Chicagon zazpi ginen banda batean, eta Elsieren aita zen nagusia. Gizon azkarra zen, Patrick zaharra. Hark asmatu zuen idazkera hura, ume baten zirriborroa dirudiena, gakoa ez baduzu. Elsiek gure gauza batzuk ikasi zituen, baina ez zuen bizimodu hori jasaten, eta diru garbia zuenez, ihes egin eta Londresera joan zen. Nirekin ezkondata egoteko hitza emanda zegoen, eta uste dut nirekin ezkonduko zela beste lanbide bat hartu izan banu; baina ez zuen ezer jakin nahi bide okerrekin. Gizon ingeles honekin ezkondu ondoren bakarrik jakin nuen non zegoen. Idatzi nion, baina ez nuen erantzunik jaso. Orduan hona etorri nintzen, eta gutunek balio ez zutenez, mezua irakur zezakeen tokietan utzi nituen.

—Hilabete daramat hemen. Baserri hartan bizi nintzen, beheko logela batean, eta gauero sartu-irtenean ibiltzen nintzen inor ohartu gabe. Elsie nirekin etortzera konbentzitzen saiatu nintzen. Mezuak irakurtzen zituela banekien, behin erantzun bat idatzi baitzuen. Gero,

haserreak gainditu ninduen eta mehatxatzen hasi nintzen. Orduan gutun bat bidali zidan, alde egiteko eskatuz, eta senarrari eskandaluak bihotza hautsiko ziola esanez. Goizeko hiruretan jaitziko zela esan zidan, senarra lo zegoenean, eta leihoan hitz egingo genuela, ondoren bakean uzten banu. Jaitzi zen eta dirua ekarri zuen ni alde egiteko konbentzitzeko. Horrek amorrua piztu zidan, eta besotik heldu eta leiho barrura sartzen saiatu nintzen. Une horretan senarra sartu zen, errebolberra eskuan zuela. Elsie lurrean erorita zegoen, eta aurrez aurre geratu ginen. Nik ere arma nuen, eta altxatu nuen beldurtzeko eta ihes egin ahal izateko. Berak tiro egin zuen eta huts egin zuen. Nik ia une berean egin nuen tiro, eta bera erori zen. Lorategitik ihes egin nuen, eta alde egiten nuela, leihoa ixten entzun nuen. Hori egiada, jaunak, hitzez hitz, eta gero ez nuen ezer gehiago jakin, harik eta mutil hura ohar batekin etorri eta hona ekarri ninduen arte, inozo baten moduan, eta zure esku utzi ninduen.

Amerikarra hitz egiten ari zen bitartean zaldi-gurdi bat iritsi zen. Bi polizia barruan zeuden. Martin inspektorea altxatu eta atxilotuaren sorbalda ukitu zuen.

—Joateko garaia da.

—Ikus dezaket lehenago?

—Ez, ez dago kontziente.

—Sherlock Holmes jauna, espero dut inoiz berriro kasu garrantzitsu bat badut, zortea izatea zu nire ondoan izateko.

Leiho ondoan geratu ginen zaldi-gurdi alde egiten ikusten. Itzuli nintzenean, presoak mahaira jaurtitako paper zatia ikusi nuen.

—Saiatu irakurtzen, Watson —esan zuen irribarrez.

Ez zuen hitzik, baizik eta gizon dantzakarien marrazki lerro bat.

—Azaldu dizudan kodea erabiltzen baduzu, —esan zuen Holmesek—, “berehala etorri hona” esan nahi du. Ziur nengoen ez zuela uko egingo, pentsatuko baitzuen emakumearengandik bakarrik etor zitekeela. Eta horrela, Watson maitea, gizon dantzariak askotan gaizkiaren zerbitzari izan diren arren, oraingoan onerako erabili ditugu. Eta uste dut, horrekin, zure koadernoan zerbait ezohikoa emateko promesa bete dudala. Hirurak eta berrogeiko trena hartu behar dugu, eta uste dut afaltzeko Baker Streetera itzuliko garela.

Azken ohar gisa bakarrik. Abe Slaney amerikarra heriotza-zigorrera kondenatu zuten Norwichen, neguko epaiketetan; baina bere zigorra espetxe-lan gogorrera aldatu zuten, aringarriak kontuan hartuta eta Hilton Cubittek lehen tiroa egin zuela ziurtzat jotzen zelako. Hilton Cubitt andreari dagokionez, dakidan bakarra da osorik sendatu zela eta oraindik alargun jarraitzen duela, bere bizitza osoa behartsuen zaintzara eta senarraren ondarea administratzera eskainiz